



TXINTXARRI

Kalea hartu dute

Martxoaren 8aren bueltan ekimen ugari aurrera eramaten ari dira lasarteoriatarak, horien artean, aldarrikatzaileak / 2-3

Sentiarazitakoa sentituko dute

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei "maite zaitut" esango diete festa erraldoia izango den herri omenaldian / 8-9

Aurtengo jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa martxan du udalak / 4

Euskaraldian izena eman ahalko dute norbanakoek hilaren 15etik aurrera: ahobizi, edo belarriprest / 5

Andaluzia eguna ospatzeko ekimen ugari egin dituzte Semblante Andaluz-eko lagunek / 6

Yoga, musika eta elikagaiekin, herriko zenbait ekintzailek goxatu egin dute inurritegia / 7

Ostadar Boleibola ataleko Euskal Ligako taldea, II. mailako txapeldun, D'Elhuyar garaitu ostean / 10

Buruntzaldea IKTKo igerilariak marka ugari ondu dituzte Neguko Ligako azken jardunaldian / 11

Banaka edo binaka

1000€
Epaimahaia aukeratutako bideoarentzat

500€
Herriarren boto gehien jasotzen duen bideoarentzat

Familian (bi lagun edo gehiago)

1000€
Epaimahaia aukeratutako bideoarentzat

500€
Herriarren boto gehien jasotzen duen bideoarentzat

Taldean (hiru lagun edo gehiago)

1000€
Epaimahaia aukeratutako bideoarentzat

500€
Herriarren boto gehien jasotzen duen bideoarentzat

BIDEO LABURREN LEHIAKETAREN OINARRIAK

www.lasarte-oria.eus/euskaraldia

Ekitaldi ugari egiten ari dira Martxoaren 8aren bueltan

Faxismoaren aurka feminisमतik eragitea aldarrikatu dute



Lasarteoriatar ugariak parte hartu zuten zunba maratoian. TXINTXARRI



Nuria Fernandez eta Estitxu Alkorta zinegotziak, adierazpen batua irakurtzen. TXINTXARRI



Martxoaren 8ko kartel lehiaketako sariak eman zituzten udal ordezkariak. ISAAC FARRE RICO



'La maja y la mona' antzezlanaren emanaldia egin zuten Ttipia Teatroa konpainiako aktoreek. TXINTXARRI



Manifestazioaren aurretik hamaiketakoia egin zuten Xirimiri elkarteak. TXINTXARRI



Eidabe Teatroa konpainiak 'Amama!' antzezlana erakutsi zuen. TXINTXARRI



More koloreko afixa, zapi eta bestelako jantziak izan ziren nagusi Okendoko elkarretaratzean. TXINTXARRI



Gazte feministen manifestazioan parte hartu zutenek erdiguneko kaleak zeharkatu zituzten. TXINTXARRI

Hilaren 8a izan zen Emakumearen Nazioarteko eguna eta larunbat horretan aurrera eraman zituzten aldarrirako jardunaldi horretako ekimen gehienak. Gauzak horrela, udalaren egitarauaren barruan zunba maratoia, Okendo plazako elkarretaratzea eta *Amama!* antzezlaren emanaldia (Eidabe Teatroa konpainiako aktoreek ohotzaratu zuten lan hori, kultur etxeko auditorioan) egin zituzten. Bestalde, herriko gazte feminista batzuek programa bat gauzatu zuten goiz horretan zehar, aurretik egindako asanblada irekietan adostutako zenbait ekintzarekin: herri apainketa, hamaiketakoa Xirimiri elkartearen eta erdigunea zeharkatu zuen manifestazioa. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren aldarriekin bat egin eta faxismoaren kontra "ausardia eta aliantza feministak" eraikitzeko beharra nabarmendu zuten.

Azken urteetan bezala, udalak ekimen gehiago aurrera eraman ohi ditu Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan, Martxoaren 8an bertan ez izanda ere. Bi egun lehenago burutu zuen, adibidez, datorren urteko programa iragarriko duen kartel lehiaketaren sari banaketa, Sexuen Elkarbizitzarako Emakumearen Zentroan. Egun bat geroago, aldiz, Ttipia Teatroa taldeko antzezleek *La maja y la mona (o viceversa)* ikuskizunaren emanaldia egin zuten kultur etxean. Zero Sette Akordeo Orkestrako musikariak historian zehar konposatzaile izan diren emakumeen piezetan oinarritutako emanaldi ederra egin zuten Antonio Mercero aretoan, hilaren 9an. Biyak Bat adinekoen egoitzako egoiliarrek, berriz, feminismoa eta transexualitatea bezalako gaiak landu zituzten Norberta filmeko eszena batzuk ikusi eta solasaldia egin ostean.

Hilaren 18ra arte ekimen gehiago egingo dituzte; aldizkari honetako 15. orriko *Agenda* atalean jaso ditugu hitzordu horiek guztiak.



Emakume konposatzaileen lanetan oinarritutako kontzertua eman zuen Zero Sette orkestrak. TXINTXARRI



'Norberta' filmaren ganean hitz egin dute, lan horretako zenbait eszena proiektatuta. TXINTXARRI

San Pedro Jaietako afixa aukeratzeko lehiaketa

Hilaren 7a izan da lanak aurkezteko lehen eguna, eta apirilaren 5a, azkena. Saridunak 600 euro poltsikoratuko dituela jakinarazi dute antolatzaileek, eta sortzaile oro animatu dute deialdian parte hartzera. Egileek zenbait baldintza kontuan izan beharko dituzte

Txintxarri

Agustin Valdivia alkateak eta Jaiak eta Gazteria saileko zinegotzi Txus Alonsok jakinarazi dute aurtengo sanpedroak iragarriko dituen kartelak aurkezteko epea irekitzear dela. Nabarmendu dute urtero interesa pizten duen ekimena dela, eta horren helburua dela herritarrei jaietako irudiaren parte aktibo izateko aukera ematea.

Lehiaketa parte hartu nahi duen orori irekia dela azaldu, adin mugarik eta bizileku baldintzarik gabe. Hala, partaide bakoitzak nahi adina proposamen aurkez ditzake, betiere originalak badira eta beste lehiaketetan sarituak izan ez badira.

Aurkeztuko dituzten lan guztiek izango dituzte bete beharreko zenbait baldintza. Guztiek *San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2025* leloa erakutsi beharko dute (modu ikusgarrian), eta



Udal ordezkariak lehiaketa aurkezteko agerraldian. TXINTXARRI

"genero berdintasuna" errespetatu beharko dute. "Gure jaietako irudiak aniztasuna eta berdintasuna islatu behar ditu, estereotipoak saihestu eta emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bat ber-

matu behar ditu", adierazi du Alonsok.

Afixak formatu digitalean edo fisikoan aurkez daitezkeela ere ohartarazi dute udal ordezkariak. Gauzak horrela, formatu digitalean aurkeztea

erabakitzen dutenek, JPG formatuan bidali beharko dituzte lanak, 50x70 zentimetroko neurriarekin eta 300 pixeleko bereizmenarekin. Posta elektronikoz bidali beharko dira helbide honetara: sanpedrojaiak@lasarteoriasarean.eu, eta egilearen datu pertsonalak eta harremanetarako informazioa jasotzen duen testu dokumentua erantsi beharko diete. Lanak fisikoki aurkeztuko dituztenek, aldiz, kontuan izan behar dute kartelek neurri bera izan behar dutela (50x70 zentimetro). Gazte Informazio Bulegoan entregatu beharko dituzte, honako egun eta orduetara: asteartetik larunbatera, 12:00etatik 21:00etara. Afixaren izenburua atzealdean jarri beharko dute, eta egilearen datu pertsonalak jasotzen dituen gutun azal itxi bat erantsi beharko dute.

Lanak aurkezteko epea

Apirilaren 5era arteko (00:00ak arte) epea izango dute interesdunek lehiaketara lana bidaltzeko aukera.

Behin epealdi hori igarota, aurreko aldiatan bezala, aurkeztutako lan guztiak udalaren web atarian jarriko dituzte ikusgai herritarrek horien artean euren gustukoena aukera dezaten. Horren gainean honako adierazpenok egin ditu alkateak: "Garrantzitsua iruditzen zaigu herritarrek kar-

telaren aukeraketan parte hartzea. Gure herria ordezkatzeko duen irudia guztion gustukoa izatea nahi dugu".

Hala ere, herritarrek euren iritziak emango dituzten arren, azken erabakia udaleko Jaiak eta Gazteria sailak izendatutako epaimahaiaren esku egongo dela ohartarazi dute, eta jakinarazi, sormenaren, kalitatearen, eta jai gaiari egokitzapena hartuko dituztela kontuak garailea erabakitzeko. Irabazleak 600 euro jasoko ditu sari gisa.

Udal ordezkariak sortzaileak lehiaketan parte hartzera gonbidatu dituzte: "Urtero harritzen gaitu gure herrian eta inguruan dagoen talentuak. Diseinuaren profesionalak zein zaleak animatu nahi ditugu proposamenak aurkeztera".

600 EURO POLTSIKORATUKO DITU AFIXA GARAILEAREN EGILEAK

APIRILAREN 5ERA ARTE DUTE INTERESDUNEK EUREN LANAK LEHIKETARA AURKEZTEKO AUKERA

Barrikotea egingo du Extremadura Etxeak hilaren 22an

Sagardotegiko menu goxoaz eta sagardo freskoaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek, Extremadura Etxeak hilaren 22an aurrera eramango duen barrikotean. Elkarrekin horretako kideek jakinarazi dute bazkide direnek izango dutela lehentasuna eta igandera arte aukera izango dute hiru lagun gonbidatzeko. Datorren asteke asteazkenean (hilak 19) tokirik libre balego, inskripzioa edonori irekiko diote. Bazkideek 29 euro ordaindu behar dituzte, eta bazkide ez direnek, 32 euro.

Informazio gehiago, 681 22 17 59 zenbakira deituta (Angel Barrera) edo casaxtremaduralo@gmail.com helbidera idatzita.



TXINTXARRI

Udalhitz sinatzearen alde

Udalhitz hitzarmena berritzeko negoziaketak direla-eta, EUDEL Batzorde Ejekutiboa osatu edo osatzen duten udalari ezberdinetan elkarretaratzeak egin ditu berriki ELA sindikatuak; Oriá-Goierrri eskualdeko kideak Lasarte-Oriako udaletxe aurrean bildu dira. ELAko ordezkariak agerraldi horretan azaldu modura, "zerbitzu publikoak indartu beharrean hauen kalitatea okertzen ari da" eta horrek lotura zuzena du langile publikoen lan baldintzen gainbeherarekin.



TXINTXARRI

Batzar orokorra, Hernanin

Otsaileko azkeneko ostiralean ere mobilizazioa aurrera eraman zuen Lasarte-Oriako Sarek, Elizatetik Okendo plazara. Ohi bezala, dozenaka herritar manifestatu ziren euskal preso, iheslari eta deportatuen alde. Amaierako irakurketan Sare Herritarrek hilaren 22an egingo duen X. Batzar Orokorre gonbidatu zituzten bertaratutakoak. Hernaniko Biteri kultur etxean elkartuko dira.

Ahobizi edo Belarriprest izango direnen txanda da

Pixkanaka-pixkanaka abiada hartzen ari da maiatz erdialdeko Euskaraldia. Bihar, hilak 15, irekiko dute norbanakoek izena emateko epea. Bestalde, Lasarte-Oriako Euskaraldiaren koordinazio guneak bideo lehiaketa jarri du martxan, apiril amaierara arte

Txintxarri

Udaberrian sartzeaz gaude eta horrek erabat aldatuko du azken hilabeteotako argazkia. Lurra iratzarri egin da eta loratzen hasi dira dagoeneko landare edota zuhaitzak, egunak luzeago eta gauak laburragoak dira, neguan migratu zuten animaliak bueltatzen ari dira... Laburbilduz, hastear daude bizi-biziak izango diren hilabete batzuk. Testu-guru horretan, lozorroan behar bada ez baina makalduta zeuden hizkuntza ohiturak astintzeko ariketa ere urtaro honetan aurrera eramango dugu: Euskaraldia. Maiatzaren 15etik 25era astinduko dituzte Euskal Herri



Bideo lehiaketa promozionatzeko irudia. EUSKARALDIA LASARTE-ORIA

osoko bazterrak, eta, jakina, Lasarte-Oria ere bai.

Ama lurra bezala, Euskaraldia bera abiada hartzen ari da pixkanaka-pixkanaka, hein handi batean herriz herriko talde eragileek eta koordinazio orokorraz arduratzen ari direnek egiten duten lanari esker. Entitateengana jo zuten aurrena, ariketa bat baino mugimendu sozial bat den horren laugarren aldia zertan den azaldu eta izen emateak bultzatzeko. Norabide horretan urrats bat gehiago egingo dute bihartik (hilak 15) aurrera, norbanakoek aukera izango dutelako Ahobizi edo Belarriprest rola hartu eta inskribatzeko. Horretarako, www.euskaraldia.eus atari digitala erabili behar dute.


Bideo lehiaketa



Arestian esan bezala, tokian tokiko koordinazio taldeak eratu dituzte eta Lasarte-Oriakoak – udaleko Euskara Zerbitzuak eta Tt'akun Kultur Elkarteak osatzen dute gaur-gaurkoz, nahiz eta atek zabalik dituzten ekarpenak egin nahi dituen edonor batu dadin–hilabeteak daramatza lanean,

maiatz erdialdeko ariketaren aurreko eta ondorengo egun eta asteak girotzeko. Besteak beste, bideo lehiaketa bat prestatu dute eta iragarri dute martxan dagoela honezkeroko, apirilaren 28ra arte, *Merezi du Euskaraldian parte hartzea* lelopean. Antolatzaileek laster emango dituzte ekimen horri buruzko zehaztapen gehiago baina lasarteoriatarren eskura jarri dute <https://www.lasarte-oria.eus/eu/bideo-laburren-lehiaketa> esteka, ikus-entzunezkoak bidaltzeaz gain lehiaketaren oinarriak kontsulta ditzaten.

Otsail erdialdean entitateekin egin zuten aurkezpen bilera bat eta orduan eman zuten gure herriko Euskaraldiko mugarrien berri. Bideo lehiaketa ez ezik, ekimen gehiago aurrera eramango dituzte. Apirilaren 12an, esate baterako, gune ibiltaria ekarriko dute izen emateak biltzeko eta maiatz erdialdeko ariketa girotzen jarraitzeko. Udaberriko oporraldiaren bueltan, berriz, izena ematen dutenei Ahobizi edota Belarriprest izateko txapak emango dizkiete, hasiera irudikatzen argazki masibo bat egingo dute eta ekitaldi bat ere bai.

Infomaitemindu ➔

Bidali  **ALTA 747 444 777** zenbakira eta jaso Gipuzkoa eta Foru Aldundiari buruzko informazio garrantzitsuena.





Meza rozieroa egin zuten San Pedro parrokian. Musika eta dantza ez ziren falta izan. TXINTXARRI

Andaluzia eguna gogotik ospatu dute Semblante Andaluz-eko kideek

Ohorezko ardoarekin topa egin ostean irudikatu dute elkartearen lehendakaritza aldaketa: Fernando Cruzi pasa dio lekukoa Jose Mari Melladok, printzipioz, urtebeterako. Gogotsu hartu du kargua eta ospakizun jarduera denak gidatu ditu

Lierni A. Urdanpilleta-Iñigo G. Sarobe Andaluziaren xarma eta grazia erakutsi dute aurten ere Semblante Andaluz elkartearen kideek, probintzia hori goratzeko egunaren bueltan (otsailak 28) zenbait ekimen aurrera eramanda: ohorezko ardoarekin topa, meza rozieroa, bazkaria eta Jose de la Bahia nahiz Daniel Ayala musikarien flamenko kontzertua. Zenbait herritarrek eta udal ordezkariak jarduera horietan parte hartu dute.

San Pedro parrokia leporaino zegoelarik egin zuten meza rozieroa hilaren 9an. Semblante Rocieroko kideek abesteari gain, Duende taldeko lau dantzari sevillana bat dantzatu zuten. Gitarrak, flautak, erritmo kaxa eta emakumezkoen zein gizonzkoen ahots mordoa. Errepertorioa ere ugaria izan zen eta bertaratutakoak ahapeka kan-

tatu zituzten abestien letrak, ordubete iraun zuen emanaldi horretan.

Bitartean, Semblante Andaluzek Atsokabarren duen egoitzako suak martxa betean zituzten Txemi Zulaika eta Txus Ayes-taran sukaldariak, ehun bat pertsonarentzat bazkari goxoa prestatzeko ardura izan zutenek. Hauxe izan zen menua: heste-beteak, arrain pastela, perretxiko hostopila eta marisko krema, hasteko; xahal masailak patata purearekin edo bakailao gratinatua piperradarekin, jarraian; eta krema eta nata hostopila, postrerako. Zuzendaritza talde berrian sartu diren zenbait boluntariok zerbitzatu zuten hori guztia, azkar eta fin. Mahai tresnak dantzan jarri aurretik, otordura bertaratu zirenek Andaluziako ereserkia abestu zuten, Semblante Rocieroko lagunen

erritmorra. Bazkaltzen amaitu zutenean eta kafearekin edo koparekin zirela ekin zioten arratsaldeko flamenko kontzertuari Jose de la Bahia eta Daniel Ayala musikariek. Ikus-entzuleek behin baino gehiagotan utzi behar izan zituzten katilu eta edalontziak mahai gainean, bi artista horien lana txalotzeko.

Aipatu ekimen horiek guztiak Semblante Andaluzeko lehendakari berriak gidatu zituen, Fernando Cruzek. Otsailaren 28an jaso zituen lehendakaritza eta egoitzako giltzak, aurreko presidente Jose Mari Melladoren eskutik. Gogotsu hartu du kargua herritarrek eta eskerrak eman dizkie Andaluzia egunaren bueltan antolatutako guztian parte hartu eta lagundu dutenei. Halaber, iragarri du datozen hilabeteetan jarduera gehiago egingo dituztela.



Lehendakaritza eta egoitzako giltzak, Fernando Cruzetzat (eskuinean). TXINTXARRI



Andaluziako ereserkia kantatu zuten bazkaltzera eseri aurretik. TXINTXARRI



Bazkari goxoa prestatu eta zerbitzatu zuten sukaldari eta laguntzaileak. TXINTXARRI



Bazkalostean, flamenko kontzertu batez gozatu zuten. TXINTXARRI

Yogaren bidez hornitu dute inurritegia

Izan Inurri elkarteak diruz laguntzeko asmoz ekimen solidario bat aurrera eraman dute zenbait eragilek, Antonio Mercero aretoan. Ariketak egin eta musika nahiz zenbait testigantza entzun ostean, elkarrekin gosaldutako jardueran parte hartu dutenek

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Izan Inurri elkarteak helburu du minbiziaren inguruko dibulgazioa egitea, baita gaixotasun hori erastatutako pertsonak laguntzea ere. Era berean, haren inguruko tabuak eta mitoak ezabatzen saiatzen dira. Horren harira, hilaren 8an, yoga solidario saio irekia antolatu zuten. Parte hartzaile bakoitzak ekimenaren aldeko donazioa egin zuen, gutxienez, 20 eurokoa.

Goizean, bi saio egin zituzten. Lehena, erlaxazio arnasketa ariketekin, Rafael Beckles irakasleak gidatu zuen. Ondoren Yoga Nigra-ren txanda, Udane Arrizabalagaren eskutik. Asanak egin bitartean, musika ere izan zuten Mathilde Vlieg biolontxelo jotzaileari esker. Bukatzera-koan, bertaratutako hiru emakumeek minbiziarekin izandako esperientziak partekatu zituzten, baita Izan Inurri horrelako egoeran nola lagundu dieten azaldu ere.



Aurreneko saioan erlaxazio arnasketa ariketak egin zituzten. TXINTXARRI

Yoga sesioaren ostean, elkarrekin batera gosaldutako herriko zenbait eragileei esker; Leire Berasategi Kafeak, Ilargi taberna, Kairos Lasarte eta Ore Ama obradorea. Hori ez ezik, parte hartzaileei oroigarri bana

eman zieten antolatzaileek: Koöl Studiok diseinatutako koleteroa eta giltzarria. Aipatzekoa ere bada saioaren argazkiak Idoia Telleria Maritxalarrek egin zituela eta jateko fruta Argote dendak eman ziela.



TXINTXARRI

Dokumentalen zikloa itxi dute

Okendo Zinema Taldeak bosgarrenez antolatu du aurten Euskal Dokumentalen Zikloa eta lan sorta ederra erakutsi du kultur etxeko auditorioan. Azkeneko emanaldia *Itoiz, udako sesioak* izan zen eta zuzendarietako bat, Zuriñe Goikoetxea, gonbidatu zuten bertaratu ziren dozenaka ikus-entzuleekin solastera.



NEURE KABUZ
JULEN BASTERRA

Pornografiaren

Nerabe askok bezala oharkabean egin nuen topo pornografiarekin. Ez dakit zenbat urterekin ikusi nituen lehendabizikoz bi ezezagunen gorputz biluziak sexu-harremanak kamera aurrean edukitzen, baina, orduz geroztik beti kontsumitu izan dut pornografia. Garai batzuetan gehiegi, adikzioetik gertu ibili naizela esango bainuke.

Gaurko egunez, esfortzu handiak eginda, pornografia erabat uztea lortu dut. Erabaki hau hartzeraren aurrera, besteak beste, pantaila bidez etorri den informazioa izan da, Alejandro Villena *¿Por qué no? Cómo prevenir y ayudar en la adicción a la pornografía* liburuaren egilea eta pornografian aditua den psikologo eta sexologoari egindako Youtubeko elkarrizketa bati esker hartu bainuen, behin betikoz, pornografia uztearen erabaki hori. Honela, informazio hori modu laburtuan helaraztea da nire gaurko xedea.

Hasteko, gaur egungo estatu mailako datu kezkarri batzuk emango ditut: kontsumoaren hasiera 9 urtetik 11 urtera ematen da, industria pornografikoak Amazon eta Netflix-ek baino ikus-taldi gehiago dauzka, sarean dagoen pornografiaren %20a haurren pornografia da eta helduen %4ak noizbait haurren pornografia kontsumitu du.

Gaiak duen eragin soziala altua denez ikerketa asko egin dira. Horieta batean, adikzio-pornografikoa zuten %50ak baina gehiagok antsietatea, depresioa, TOK edo ADHN garatu zuten. Honen haritik, osasun mentala eta pornografia estuki lotuta daudela ikusten ari gara. Izan ere, ikertzen ari da pornografia egunero kontsumitzen bada garuna fisikoki aldatu egiten dela. Drogaren eta jokoaren menpe dauden pertsonen garunak eta pornografia egunero kontsumitzen duten pertsonen garunak oso antzekoak direla ikusi da erresonantzia magnetikoetan atera diren irudietan. Pornografiak garunaren estruktura aldatzen du eta sentikortasunik gabe utz gaitzake sentikorrak izan beharko ginatekeen estimuluen aurrean.

Honez gain, garunaren ordainsari-sistema kaltetzen du, hipe-raktibazio bat eraginez (kokainazale baten garuna bezalakoa da garuna iruditan), eta honek ere motibazioaren eragina dauka, dopamina sistema kaltetzen baitu. Gainera, lobulo frontaleko garun-masa (substanzia grisa eta txuria) txikiagotzen du. Alegia, ekintzak planifikatu eta zuzentzen dituen kapitain lanak egiten dituen garunaren alderdia kaltetzen da pornografia egunero kontsumitzen bada. Eta hau guztia gutxi balitz, ispilu neuronak kaltetzen dituen ikerketak ere egin dira, alegia, enpatia eta ikasketarekin zerikusia duten neuronak kaltetzen ditu pornoaren kontsumo altuak. Laburbilduz, adimen urritasuna eragiten du.

Maila indibidualetik haratago, pornoak biolentzia sexuala normalizatzen du eta eguneroko bizitza kaltetzen duten espektatiba faltsuak sortzen ditu, eredu pornografikoarekin harremanetan baitira bikote asko. Honi lotuak daude ere disfunczio tentekorria eta plazera lortzeko ezintasuna. Argi dago, bikote-harremanetan erreferente oso txarra dela, faltsua izateaz gain biolentzia normalizatzen duelako.

Gauzak argi gera daitezkeen, pornografia biolentzia da. Hortaz, geroz eta eduki sexual biolentoagoak kontsumitu orduan eta biolentoagoak izateko probabilitatea ere altuagoa izango da. Hau da, gizon bezala bortxatzailea izateko edo emakume bezala bortxatua izateko aukera gehiago dago. Eta noski, probabilitateetatik errealitateetara igarotzen garenean biolentzia kasu asko topatzen ditugu industriaren barruan zein industriatik kanpo.

Bukatzeko, pornografiaren esan nahi nuke, isilpean, gizarte eredu penagarri bat bultzatzen ari dela. Gure arreta eta dirua besterik nahi ez dituen industria anker baten aurrean gaudela argi izan behar dugu, zeinak ez duen ez gizon ez emakumeen garapen osasuntsua inondik inora ere bilatzen. Ikusi dugun bezala, ez dago ondorioz gabeko pornografiarik, argudioei jarraiki, maila pertsonalean eta politikoan kaltea besterik ez baitu eragiten. Nik egin dut iada nire hautua: pornografiaren kontsumo osasuntsu bakarra zero da.

'Tirano' abestiaren bideoklipa argitaratu du Lurhats taldeak



Julen Basterra eta Iban Nikolai musikariek sortutako proiektua da Lurhats. Nagusiki bi instrumentu uztartzen dituzte, gitarra klasikoa eta didjeridua, beste elementu ugariarekin nahastuta. Sendagai izena du beraien lehenengo estudioko lanak eta pixkanaka diskoko abestien bideoklipak egiten ari dira, adibidez, *Tirano*-rena.

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ttakunenea elkartean daude Pirritx, Porrotx eta Marimotots, bata bestearen ondoan, aurrenekoaren zapata handi eta koloretsuen alboan. Zentimetro batzuk atzerago eseri dira pertsonaia maitagarri horiek hezurmamitzen dituzten Aiora Zulaika (Lasarte-Oria, 1975), Joxe Mari Agirretxe (Lasarte-Oria, 1964) eta Mertxe Rodriguez (Lasarte-Oria, 1968). Tokia egin diote beraiekin jesarri den kazetariari, eta, grabagailua piztearekin batera, urrezko aukera hori baliatu du honakoa esateko: "Nik ere asko maite zaituztet". Singularrean baino, pluralean, esaldi hori bera ozen eta argi entzungo dute maiatzaren 3an, ia lau hamarkadako ibilbidean egingako guztiagatik sudurgorriei eskerrak emateko BEC aretoan (Barakaldo, Bizkaia) aurrera eramango duten Maite Zaitut festa erraldoian, 17:00etatik aurrera.

Herri omenaldiaren antolatzaileek joan den udaran elkartu zituzten sudurgorriak, sutan egosten ari zirenaren berri emateko. Ordutik, bidea "oso polita" izaten ari dela nabarmendu du Zulaikak: "Gu sortu ginen bezala antolatu dute hau guztia, herri gintzatik. Aitortzatik harago, ulertzen dugu BECekoa izango dela herri aldarri bat euskaratik, alaitasunetik, bizipozetik... Denona eta denontzat den mundu bat oihuztatzeko". Aintzatespen ekitaldi horretarako hilabete eta erdiren faltan, pailazoek honela irudikatzen dute jai hori, Rodriguezek azaldu duenez: "Puzzle erraldoi baten barruan txikia da gure herria, baina era berean handia dela erakutsiko dugu fitxa txiki asko erabillita. Izan ere, gu hirurontzat bakarrik ez da izango, baizik eta gurekin batera lan egiten duen talde handi batentzat ere bai". Agirretxe-rentzat, "elkarlanean" dago beraien indarra eta maiatzeko ekimena ere horretatik dator, "duela 37 urte abiatu genuen proiektuan bidelagun izan eta ditugun guztiengandik. Orain hau jasotzea oso polita da".

"Lasarte-Orian jaio ginen gu 80. hamarkadaren amaieran, Lasarte-Oria Berreuskaldundu Dezagun taldearen altzoan", gogoratu du Agirretxe, taldekide beteranoenak. Olentzeroren etorrera euskaraz egin nahi zutela eta, pailazo jantzi eta emanaldia egin zuten. "Egun baterako zena 37 urteko ibilbide bilakatu



Omenduak izango direla jakin zutenetik orain arteko bidea "oso polita" izaten ari direla esan dute hiru pailazoek. TXINTXARRI

"Haurrak dira gure altxorra; oraina, eta etorkizuna"

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS PAILAZOAK

Zenbat aldiz esan ote dute "maite zaitut" hiru sudurgorriek? Oraingoan, maitasuna eman bai, baina, batez ere, jaso egingo dute, herri omenaldi erraldoi batean

da, oraingoan, eta luzaroan jarraituko du". Hasierako ardatzak "euskara eta alaitasuna" izan zirela oroitu du, eta, aurreneko esketxak, *ganberroagoak* eta tradizionalagoak. "Abesti herrikoiak eta kantatzen genituen, geroago hasi ginen gure material propioa sortzen eta balore gehiago lantzen".

Gure herriaren orduko egoera soziolinguistikoa ezzen gaur egungo berbera. "Bost haurretatik lauk A ereduari [ikasgai guztiak gaztelaniaz] ikasten zuten; euskararik

ez zegoen eskolatan". Ume askok bizi izan zuten egoera hori, tartean, Rodriguezek. "Beti ikasi izan dut erdaraz. Institutuan hasi nintzean entzun nituen ikaskide batzuk euskaraz aurreneko eta izugarriko inbidia sentitu nuen, beraiek bi hizkuntza menperatzen zituztelako eta nik ez". Garai horretan hasi zen festarik festa ibiltzen eta parranda giroko hizketaldi asko euskaraz zirenez, ez zituen ulertzen. "Urratsa egin eta euskaltegian hasi nintzen. Aurreneko helburua ulertzea zen, hori lortuta gehiago

nahi nuen. Horrela, pausoz pauso, euskaraz amestera iritsi nintzen arte. Izugarria izan zen hurrengo egunean esnatzea eta hori egin izanaz jabetzea". Haur ameslaria izan zen Zulaika ere. Ederki gogoratzen du Takolo, Pirritx eta Porrotx ikusi izana 11 urterekin, txistua altzoan zuela. "Amestu nuen noizbait oholtzara igo eta beraiekin aritzeari buruz, eta pentsa zer nolako ibilbidea egin dugun. A zer zortea!".

Urdin koloreko mahai biribil baten bueltan egin dituzte go-

goeta horiek guztiak hiru sudurgorriek. Altzari horrek ezin hobeto irudikatzen du beraien lan egiteko modua: "Gure aitek Lasarte-Oriako Michelin fabrikaren egina zuten lan, beraz, beti esaten dugu gurpilek elkartu gintuztela", bota dute. "Gurpiligileen seme-alabak" izaki, "beti" egiten dute lan borobilean. "Hori da gure forma geometrikoa lana egiteko eta mundua konpontzeko bitarteko gisa erabiltzeko".

"Emozioz eta sentimenduz" betetako kantu "jolastia"

Biribila da baita ere festa erraldoiari izenburua eman dioten *Maite zaitut* abestiaren urterrena: 20 urte bete ditu aurten Euskal Herria soilik ez, mundua (sei hizkuntzatarata itzuli dute) zeharkatu dituen kantuak. "Ez du maitasun erromantikoaz hitz egiten, maitatzeko sentimenduz baizik, haurren hizkuntza jolastian: *pila-pila patata tortilla* edota *ilargiraino eta buelta* bezalako esamoldeak erabili ditugu, umek bakarrik ez, guztiok ulertzen ditugunak. Horregatik izan du hain besteko arrakasta", hausnartu du Rodriguezek.

2005ean argitaratu zuten 30 abestiko *Maite Zaitut* lana pailazoek eta izen bereko kantua ospetsuena izanagatik, besteak ere "oso politak" zirela goraipatu du Zulaikak: "*Anakieto, Txorroskileroa*... Egia da, halere, berehala sumatu genuela *Maite Zaitut* asko zabal zitekeela, emanaldietan abesten genuen bakoitzen 'ooooh' eta antzekoak entzuten genituela publikotik. Udara horretan toki guztietan entzuten hasi ginen, tabernetan, txosnetan, Euskadi Irratian... Eztanda egin zuen".

Aipatu kantuaren eta diskoaren jatorriaz mintzatu da Agirretxe. "Runba bat da, ijitoen komunitateari eskainitakoa delako. Gogoratzen dut egunkarian irakurri genuela Kale Dor Kayiko elkarteari buruzko albiste bat, jarriko zutelako martxan itzulpen erribitu bat euskarazko hitzak erromintxelera itzultzeko eta alderantziz". Berripaper horretan bertan leitu zuten baita ere ehiztari batek hartz ama bat akabatu zuela eta babesgabe geratu zela bere kumea. "Urtero etortzen dira ijitoak Asiatik, kaldereroetan, hartz eta guzti. Istorio bat eratu genuen Romi [Rodriguezek interpretatu zuen, Marimotots jaio aurretik] pertsonaiaren

bueltan. Ijitoa da bera eta Anakleto aitona bisitatzeraz dator. Berarekin datorren animalia konturatzen da kumea bakarrik dagoela eta maitasuna ematen dio, baina Romi tristetu egiten da hartz ama hori joan egin delako. Orduan, maite dugula abesten diogu, bakarrik ez dagoela erakusteko". Romi hitzak "emakume askea" esan nahi du ijitoen hizkuntzan, Zulaikak azaldu duenez. "Umeen begiradatik sortu genuen emozioz eta sentimenduz betetako kantu bat. Esango nuke *ilargiraino eta buelta* esamoldea gure emanaldi batera joan zen haur batek esan zigula eta horrek inspiratu gintuela; adin guztietakook ulertzeko moduko esapide jolastiak erabiltzen dituzte". Esaldi honekin borobildu du Rodriguezek txikienekiko duten miresmena: "Haurrak dira gure altxorra; oraina, eta etorkizuna".

Baloreak eta harreman sarea

Pailazoez euskararekin eta alaitasunarekin hasi ziren euskal irriaren ortzadarrak margotzen eta urteen poderioz balore (eta kolore) askoz gehiago gehitu dituzte. "Emanaldiak egiten hasi eta berehala konturatu ginen eredu ginela orduko haurrentzat eta gai gehiago lantzen hasi ginen", oroitu du Agirretzek. "Garai horretan gugana etorri zen Lasarte-Oriako bizi-lagun bat, adoptatutako bi alaba zituela eta kontatu zigun txikiak ez zutelako euren burua ongi kokatzen eskolan zuhaitz genealogikoa lantzerako orduan", gehitu du Rodriguezek. "Une horretan, familia eredu desberdinak jorratzea erabaki genuen, adibidez".

"Gai sozial ugari" jorratu dituzte, Zulaikak nabarmendu duenez: kultura aniztasuna, natura, gaixotasunak, heriotza... Balio horiek guztiak gizartearekin batera eraldatzen doazen heinean, sudurgorriak ez dira atzean geratu eta "abiada berean" joan dira, betiere lan guztiak "euskaratik eta euskaraz" landuta. "Errealitateak erakutsi digu dena ari dela etengabe aldatzen eta familien ereduarena, esaterako, berrartu egin dugu".

Euren lanak ontzeko gaiak gizartetik bertatik hartu dituzte gehienbat baina baita beraien errealitate propioetik ere. "Pupu eta Lore izan zituen Pirritzek, aurretik Aiora [Zulaika] Koikili

eta Lizar bikiezen erditu zelako", esan du Rodriguezek. "Hori eta gero, gure kezka zen ea nola hezikiko genituen bi haur horiek", gehitu du Agirretzek. "Orduan sortu genuen *Berria* komunikabidearekin lankidetzan Irrien Lagunak proiektua: osasuna, natura, zientzia, kultura, elkartasuna, pertsonaia berriak... Gure herritik bertatik hasi ginen lanean Euskal Herri osoko haur eta familientzat".

Denbora honetan guztian harreman sare "izugarria" josi dute pailazoez, beraien lanetan parte hartu duten norbanako eta elkarte guztiekin. "Sortzaile, kultura eragile, musikari, talde... asko eta askorekin aritu gara eta gure gizarteko alor askotan eragiten saiatu gara. Sekulako sarea sortu dute gure inguruan eta beraien bidelagun izatea oso-oso aberasgarria izan da; hartu eta ematea", azpimarratu du Zulaikak. Lankidetzaren horren adibideetako bat da Bizipoza elkarte, gizakiok ditugun premia eta errealitate desberdin ugari erakusten dituzten ekintzaile ugari osatzen dutena. "Hazia jarri genuenetik hona dimentsio handia hartu du eta Euskal Herri osoko 38 egitasmo biltzen ditu gaur egun", jakinarazi du Agirretzek. Lasarte-Orian bertan ere osatu dute talde eragile bat eta kulturartekotasunarekin ari dira aurtun, buru-belarri. Maiatzean jaialdi bat egingo dute esparru hori gizarteratzeko eta hasi dira ospakizun ekitaldia prestatzen.

"BOROBILA DA GURE GEOMETRIA FORMA, MUNDUA KONPONDU ETA LAN EGITEKO BITARTEKO GISA"

"MAITASUNAZ HITZ EGITEN DU 'MAITE ZAITUT'-EK, UMEEN BEGIRADATIK, DENOK ULERTZEKO MODUAN"

"MUNDUKO TOKI UGARITATIK ETORRI BERRIAK DIRENEN HARRERA DA ERRONKA BERRIETAKO BAT"

Maiatz hasierako Maite Zaitut jaialdi erraldoia, beraz, elkarlan horrek eman duen fruituetako bat da.

Herrigintzan segi beharra

Hiru protagonistak lasarteortarrak izanik, elkarrizketaren azken minutuetan udalerririk horretako egoeraz gogoeta egin dute. Agirretxe: "37 urte pasa dira hasi ginenetik eta herria ere aldatu da, noski. Haur guztiek D ereduan ikasten dute, garai horretan komunitateen artean genituen arrakalak desagertu egin dira baina baditugu orduan imajinatuko ez genituzkeen erronka berriak, esate baterako, munduko toki ugariatik gurera etorri diren familiei harrera egiterakoan. Pailazoon taldetik oso garrantzitsua iruditzen zaigu errealitate horri ere erreparatzea". Izan ere, beste gai asko eta asko bezala, etorri berriena "aukera bat" da "elkar aberasteko eta euskaraz eta euskaratik komunitatea egiteko". Herrigintzan eragiten segitzeko, jakina, agente bakoitzak egin behar du bere lana. Sudurgorriak behintzat, jo eta ke ari dira: "Ugaritzen ari dira taldeak Euskal Herrian, gure haurrak izan diren gazteek taldeak eratu dituzte Euskal Herrian zehar: Hernani, Oñati, Bilbo, Amurrio, Sara...", jakinarazi du Rodriguezek. "Asko pozten gaitu horrek, gaztetxoentzako eredu bilakatzen direlako".

Erein, transmititu eta zaindu beharreko beste alor bat kultura dela iruditzen zaie. Garbi hitz egin du Agirretzek: "Lasarte-Oriaz hitz egiten ari garela, uste dugu zaindu behar ditugula bertako sortzaileak; gabezia bat dugu gure herrian". Ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik minbiziari buruzko dibulgazioa, formazioa eta akonpainamendua eskaintzen duen Izan Inurri egitasmoaren egoera jarri du adibidetzat. "Lasarteortarrak batzuek sortu dute eta ehunka emakumeren erreferentziazko biltoki bilakatu da, baina, Usurbilen du egoitza eta herri horretan ospatu du jaialdia, han topatu dituztelako proiektuko kideek baldintza egokiak. Pena ematen digu esateak garun eta aditu ihesa dugula, eta, hortaz, udalari eskatzen diogu herriko elkarte, ikastetxe, sortzaile eta gainera-koekiko lagundu eta zaintzeko modua garatu dezala, oso garrantzitsua delako".



Maiatzaren 3an izango da ospakizuna, Bizkaian. MAITE ZAITUT JAIALDIA

"Plaza erraldoi bat" dute zain

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei herri omenaldia egiteko "ikusbizun paregabea" antolatu du Maite Zaitut jaialdiko lantaldeak: musikariak, abeslariak, dantzariak, antzerkigileak, arte plastikoak, bertsolariak... eta, nola ez, ikus-entzuleak. Barakaldoko BEC aretoan 14.000 pertsonaren bihotzak jarri nahi dituzte taupaka eta gogorarazi dute salgai daudela ikuskizunerako sarrerak, pistarako edota harmailetarako. Biek ala biek 16 euro balio dute (kudeaketa gastuak barne) eta nikeremaitezaitut.eus webgunean eskura ditzakete emanaldi historiko hori zuzenean bizitu nahi dutenek. Antolatzaileek jakinarazi dute zenbakitu gabeak direla tiketak.

Sudurgorrien 37 urteko ibilbidea aintzatestea izan da ekimena antolatzeko arrazoi bat, eta, bestea, Maite Zaitut abesti ospetsua kaleratu zutenetik bi hamarkada bete direla aurtun. "Belaunaldi osoak hezi dituzte euren abestiek, irriek eta maitasunari buruzko ikuspegi unibertsalak!", nabarmendu dute. Adin tarte guztietako pertsonak gonbidatu dituzte parte hartzera, izan ere, "haur izan ginenok heldu bihurtu gara, baina pailazo hauek oraindik ere gure barneko haurarekin konektatzen gaituzte". Horregatik, eta, batez ere, "maitatzen zekien herriari 'maite zaitut' esaten erakutsi diotelako", eskerrak eman nahi dizkiete: "Omenaldi honetan, sudur gorriak jantzi eta haien irakaspenak eta utzi duten arrastoa topatuko ditugu elkarrekin. Orain, gure txanda da: bihotzez esan diezaiegun 'maite zaitut', denok batera".

Artista gonbidatuak pixkanaka-pixkanaka iragartzen ari dira antolatzaileak, eta, nola ez, lasarteortarrak batzuk animatu dira herri omenaldian parte hartzera: Intza Alkain ilustratzailea, Sara Etxeberria Basoko Maxuxta ilustratzailea edota Semblante Andaluz elkarteak Semblante Rociero korua. Bestalde, ikuskizuna buru-belarri prestatzen ari den gidoigileetako bat da Ane Labaka idazle eta bertsolaria.

TXINTXARRI aldizkariaren irakurleentzat, lau sarrera bikoitz Hiru sudurgorriak omentzeko festa erraldoia maiatzaren 3an aurrera eramango dute BEC aretoan, 17:00etatik aurrera. Ekimen horretaz gozatzeko aukera paregabe bat dute TXINTXARRI aldizkariaren irakurleek, izan ere, herri komunikabide horrek lau sarrera bikoitz zozkatuko ditu laster. Izena emateko azken eguna hilaren 31 izango da, astelehena. Parte hartu nahi dutenek www.txintxarri.eus atari digitalean bete beharko dute formularioa, edo, bestela, azpiko QR kode hau eskaneatu sakelako telefonoarekin. Anima zaitetze eta zorte on!





Euskal Ligako taldeko kideek eta Asier Acuriola entrenatzaileak denboraldi ederri egin dute. TXINTXARRI

Finala garaituz, denboraldia biribildu du

Ostadar Boleiboleko Euskal Ligako taldeak D'Elhuyar garaitu du final zirraragarrian eta bere mailako txapeldun da. Hurrengo denboraldian I. mailan lehiatuko da Asier Acuriolak prestatzen duen ekipoa eta Gipuzkoako ordezkari bakarra izango da

Txintxarri

Ostadar Boleiboleko Euskal Ligako II. mailako taldeak ederki amaitu du denboraldia, D'Elhuyar Logroño taldea bosgarren zatian garaituz.

Hilaren 8an, arratsaldean, Maialen Chourraut kiroldegia bere zuten zaleek kiliak dantzan jarri zizkien final borrokatuaz gozatu ahal izan zuten. Ostadar Boleibol taldeak fase erregularreko arantzatxoak kendu nahi zuen; D'Elhuyarrek azken jardunaldian garaitu zuten talde urdin-beltza.

Bi taldeak sendo egon ziren euren sakeekin eta defentsan ere lan ederra egin zuten. Tanto luzeak borrokatu behar izan zituzten bi taldeak puntuak markagailura igotzeko eta aurkariaren akatsak baliatu zituzten horretarako.

Ostadarrek eskuratu zuen lehen seta, 25-23. Errioxarrak, ordea, ez ziren atzean geratuko eta neurketa berdintzea lortu zuten, 19-25. Ez hori bakarrik, hirugarren zatian, lehia izugarriaren ostean, 24-26 aurre hartu zuen aurkariak. Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak ez zuten amore eman eta laugarren zatian euren onena emanaz, 25-21 irabazi eta bosgarren seta jokatzera behartu zuten aurkaria.

Bi orduren ostean, taldeek nekea alde batera utzi eta azken jokoari egin zioten aurre. Azken segundora arte mantendu zen zirrara kantxan eta etxekoek 15 eta 13koa lortzean jokalariek, talde tekniko eta Maialen Chourraut kiroldegiko zaletuek eztanda egin zuten.

"Errioxako taldea erasoan eta defentsan gogorra zela genekien. Gainditzeko gure onena eman behar genuen eta jokalariek finalean guzti eman zutela uste dut", adierazi du Ostadarreko entrenatzaileak.

Saria eskuan

Era horretara, denboraldiari amaiera bikaina eman dio Euskal Liga taldeak. Asier Acuriolaren taldeak urteko helburua bete du, I. mailarako igoera, eta horrez gain, bere mailako txapelketa ere lortu du.

Prestatzailea pozarren agertu da taldeak egindako denboraldiarengatik eta erronka berri-rako prestatzen hasiko direla jakitera eman du: "Erronka gogorra eta ilusionagarria da. Taldea denboraldiz denboraldi garatzen eta hezten joan da eta horrelako desafioa behar zuela uste dut".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Irauli Bosteko KK Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.
GORENGO MAILA
Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT Larunbata. 17:40. Berio, Donostian.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Euskalduna A. SD B - Texas Lasarteerra CF Larunbata. 15:30. Ubitarte, Andoain.
Ostadar SKT - Irauli Bosteko KK Igandea. 13:05. Michelin kirol gunean.
OJM, JAITSIERA
Ostadar SKT - Lazkao KE Larunbata. 16:55. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Ostadar SKT - Tolosa CF Larunbata. 18:55. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, IGOERA
Pasaia KE - Texas Lasarteerra CF B Larunbata. 18:45. J. M. Zamora, Errenterian.
OKM, JAITSIERA
Urki CD - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Unbe, Eibarren.
K. I. MAILA, KOPA
Texas Lasarteerra CF - Mutriku FT B Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT - Ast. Mundarro FKE B Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
Sporting de Herrera Ibañeta - Ostadar SKT (neskak) Larunbata. 14:15. Cesar Benito, Donostian.

K. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA
Santo Tomas Lizeoa B - Ostadar SKT C Larunbata. 14:00. Berio, Donostian.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Eguzki Arkupe Rehab. - Laskorain KE Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Goierni KE- Eguzki ISU Leihoak Larunbata. 16:00. Aldiri kirol., Urreburu.
KADETE MAILA
Eguzki Goxokis Goxua - Lauburu KE Ibarra A Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL MAILA
Eguzki Andatza T. B - Samaniego Orixe Tol. TEEP Larunbata. 11:30. Michelin kirol guneko pil. Lauburu KE II. 2012 B - Eguzki B. Escalerilla Larunbata. 12:45. Belabieta kirol. Ibarren.
SASKIBALOI
II. MAILA
Ostadar SKT - Tecnun Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Ostadar SKT - Easo Basket Igeldo Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
Ostadar Beltza - Easo Basket Oriamendi Larunbata. 11:30. Michelin kirol guneko kanbran. ZAST Esei - Ostadar SKT Igandea. 15:00. Aritzatalde kirol., Zarautzen.

EUSKAL LIGA, KADETEA
Ostadar SKT - ZAST Gap Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA
Ostadar SKT - Bera Bera Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE PARTAIDETZA
Lezo SKT - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Bekoerota kirol., Lezon.
BOLEIBOLA
SENIOR MAILA, GIP. TXAPELKETA
Aidean - Ostadar SKT Igandea. 17:30. Aritzatalde kirol., Zarautzen.
JUBENIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Bera Bera Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Oarso Berdea Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
PILOTA
ESKUZ BINAKA, INF. II. MAILA
Intza - Tolosa 5 Larunbata. 16:15. Michelin kirol guneko pil.
ESKUZ BINAKA, ALE. I. MAILA
LAPKE 2 - Intza Ostirala. 18:00 (2. partida). Joxemiel pil., Lazkaon.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Gipuzkoa Sortzen - Gijon Rugby Club

Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
EUSKAL LIGA, I. MAILA
Gipuzkoa Sortzen - Eibar RT Larunbata. 16:00. Kote Olaizola mini., Donostian.
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Zaisa Txingudi - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 16:00. Plaiaundi, Iruen.
18 URTEZ AZPIKOA
Urbealdeia Urduliz- Ges. Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 12:15. Plentzia, Bizkaian.
16 URTEZ AZPIKOA
Ges. Okelan Zarautz Beltzak RT - Iruia RC Larunbata. 12:30. Atsobakar kirol gunean.
ATLETISMOA
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Ostadar SKTko Eider Redondok eta Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo herritarrek 16 urtez azpiko pistako Espainiako txapelketan parte hartuko dute. Larunbata eta igandea. Ourense, Galizian.
GIMNASTIKA ERRITMIKOA
AMATEUR TXAPELKETA
LOKEko amateur mailako gimnastek txapelketako bigarren jardunaldia lehiatuko dute. Igandea. Egun osoa. Ibarroa kiroldegian.
IGERIKETA
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTko alebin mailako

igerilariek Ligako bosgarren jardunaldia jokatuko dute. Larunbata. 18:05. Usabal kirol., Tolosan.
BENJAMIN JAIALDIA
Buruntzaldea IKTko benjaminen jardunaldi berria izango dute. Larunbata. 16:00. Usabal kirol., Tolosan.
XAKEA
II. MAILA, IGOERA
Bergara A - Taula A Larunbata. 16:00. Bergaran.
III. MAILA
Gros L - Taula B Larunbata. 16:00. Carmelo Balda kirol., Donostian.
DUATLOIA
ANDOINGO DUATLOIA
Lasarte-Oriako kirolariek esprint modalitateko Andoaino Duatloian parte hartuko dute. Larunbata. 16:00. Andoainen.
LASTERKETA
UDABERRIKO LASTERKETA
Herritarrek Udaberriko lasterketa lehiatuko dute. Horretan 10 km probako Gipuzkoako txapelketa izango da jokoan. Igandea. 10:00. Donostian.
PIRAGUISMOA
PIRINIOETAKO KOPA
Maialen Chourraut palistak Pirinioetako Kopako bigarren jardunaldia lehiatuko du. Larunbata eta igandea. La Seu d'Urgell, Katalunian.

Ligako azken saioan, igerilariak markak ontzen

Buruntzaldea IKTko igerilariak Neguko Ligako azken jardunaldiari egin diote aurre. Ederki egin dute igeri eta marka pertsonal ugari berri dituzte. Bidasoa XXI taldeko Iñaki Bochar herritarra, aldiz, junior mailako Espainiako txapelketan izan da lehia

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko hamabost igerilarik Gipuzkoako Neguko Ligako azken jardunaldia jokatu zuten hilaren 8an, Ordizian.

Igeriketa taldeko kideak ederki aritu ziren lehia. Probetako lehen postuetan izan ziren eta marka pertsonal ugari berri zituzten. Ikus ondoko koadroa.

Buruntzaldea IKTko prestatzaileak pozarren daude taldeko kideen jardunarengatik: "Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak bukatu ondorengo lehen lehia izan zen eta oso baliagarria izan zitzaigun entrenamendue-



Neguko Ligako azken jardunaldian parte hartu zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Neguko Ligan ondutako markak

- Iker Gorostegui 100 m. eta 200 m. bizkar
- Alba Escribano 800 m. libre eta 50 m. tximeleta
- Mayi Gorostegui 50 m. libre eta 100 m. lau estilo
- Irati Etxeberria 100 m. bular eta 50 m. tximeleta
- Oihan Matute 100 m. bular
- Mario Amantegi 100 m. bular eta 100 m. lau estilo
- Ibon Elola 800 m. libre
- Kimetz de la Cruz 800 m. libre eta 50 m. tximeleta
- Amaiur Iparragirre 50 m. eta 200 m. libre
- Nora Miguelez 800 m. libre eta 50 m. tximeleta
- Ane Meyer 800 m. libre eta 100 m. lau estilo
- Itxaso Iparragirre 50 m. tximeleta
- Ander Martinez 800 m. libre eta 100 m. lau estilo
- Laida Guerrero 800 m. libre

tan egindako zuzenketek duten emaitza egiaztatzeko".

Era berean, hilaren 29an eta 30ean, Bergaran lehiatuko den Gipuzkoako Klubek Kopa prestatzeko ere baliagarria izan zela adierazi dute taldeko entrenatzaileek.

Espainiako txapelketa

Horrez gain, Bidasoa XXI taldeko Iñaki Garcia Bochar herri-

tarra junior mailako Espainiako txapelketan lehiatu zen hilaren 5etik 9ra, Sabadellen, Katalunian.

Herritarrak 16 urteko mailan hiru probatan parte hartu zuen. 50 m. bizkar (28,99) eta 50 m. (25,17) zein 100 m. libre (55,43) kanporaketa saioetan egin zuen igeri Irungo taldeko kideak, baina ezin izan zuen finaletarako sailkatu.

LOKEko judokak Legazpiko txapelketa podiumean izan dira

Infantil mailako gaztetxoek lau brontzeko domina eta bosgarren postu bat eskuratu dituzte lehiaketan

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judoek bi hitzorduri egin zioten aurre hilaren 8an eta 9an eta gaztetxoek hainbat domina jantzi zituzten.

Tatamira ateratzen lehenak infantil mailako kirolariak izan ziren; Legazpiko Herria txapel-

ketan parte hartu zuten hilaren 8an. Pisu ezberdinetan izan zituen ordezkariak Lasarte-Oriako judo taldeak. Ederki borrokatu ostean, lau brontzeko domina eta bosgarren postu bat eskuratu zituzten (ikus ondoko koadroa).

Hurrengo egunean, aldiz, taldeko alebinek Urnietako kirol-

Legazpiko Herria txapelketa

- Ariane Luis - 3º
- Ariana Mendoza - 3º
- Cristel Vallejo - 3º
- Alejandro Arealillo - 3º
- Marco Irisco - 5º

degian eskolarteko jardunaldia izan zuten eta ederki jardun ziren gaztetxoak.

Hilaren 22an eta 23an ere, hitzordu garrantzitsuei egin behar ko diete aurre taldeko kideek.



LOKEko judokak, Legazpiko txapelketan eskuratutako domina eta garaikurrekin. LOKE JUDO

Lehen egunean infantil mailako ordezkariak Gipuzkoako txapelketako finala jokatu dute;

bigarrenegun, aldiz, kadeteak izango dira lurraldeko txapelketa borrokatuko dutenak.

**BESTE
MODURA
DENONA
DA ONURA**

Martxoak 10-26 / errigora.eus

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

EGIN
ESKAERA
ORAIN! >>>



errigora

Maialen Chourrautek, urteko lehen lehiak

Lasarte-Oriako kirolaria urtariletik otsailera Australian izan da Espainiako selekzioarekin entrenatzen eta lehian. Pirinioetako Kopako lehen jardunaldia jokatu du Pauen (Frantzia) eta hilaren 15ean eta 16an, bigarren saioa izango du La Seu d'Urgellen

Txintxarri

Maialen Chourraut Iurramendi herritarrak Pirinioetako kopako lehen hitzordua lehiatu zuen hilaren 8an eta 9an Pauen (Frantzia).

Herriko palista K1 eta kayak kros modalitateetan izan zen uretan eta ezin izan zen podiumera igo; zazpigarren postuan amaitu zuen K1 proba eta kayak krosetan finalerdietan kanpo geratu.

Hilaren 15ean eta 16an, aukera berria izango du olinpiar kirolariak kopako bigarren jardunaldian. La Seu D'Urgellen (Katalunia) inzego da hitzordua.

Australian lanean

Piraguismoko Eslalom denboraldia otsailaren 22an Irungo San Miguel kanalean hasi bazen ere, Chourrautek ezin izan zuen Espainiako kopako lehen proban egon; Espainiako selekzioa urtarilaren 20etik otsailaren 25ra Australian egon



Chourraut (eskuinean), Ozeaniako txapelketako podiumean. RFEPIRAGUISMO

zen aurtengo hitzordu garrantzitsuak prestatzen, hala nola, bertako Penrith Whitewater kanalean urrian jokatuko den Munduko txapelketa.

Entrenamendu saioez gain, bi txapelketa ere lehiatu zituzten palistek eta Ozeaniako txapelketan kayak krosetako podiumera igo zen herritarrak.

Urtarril amaieran jokatu zen Ozeaniako txapelketa eta Chourrautek brontzeko domina eskuratu zuen kayak krosetan; Ricarda Funk alemaniarra izan zen garailea eta Kimberly Woods britaniarra bigarren izan zen. K1ean ere aritu zen eta zazpigarren izan zen.

Etxera itzuli baino lehen, aldiz, Australiako Openean parte hartu zuen herritarrak eta K1eko B finala irabazi zuen. Kayak kros lehian, final erdietan kanporatua izan zen Chourraut.

Ezin lehiatu

Bestalde, hilaren 8an, Gipuzkoako aulki mugikorreko jardunaldia antolatua zegoen Legutioko Kosetxo Fernandez Vaqueriza estropada eremuan (Araba), baina infantil mailako lehiak jokatu ostean, gainerako probak bertan behera geratu ziren eremuan zebilen haizearengatik. Ondorioz, Donostia Arraun Lagunak taldeko Nahia Goenaga Sarobek ezin izan zuen saioa borrokatu.

Herriko kirolariek duatloi denboraldia hasi dute

Lasarte-Oriako ordezkariak Amorebieta Etxanoko edo Añorgako duatloian izan dira lehian bakarka zein taldean

Txintxarri

Duatloi denboraldia otsailean hasi zen. Bizkaia aldean Amorebieta-Etxano, Garai eta Mungiako probak lehiatu ziren eta martxoan Gipuzkoara egin du jautzia. Zehazki, hilaren 9an, Añorgako duatloia jokatu zen. Lasarte-Oriako triatloi kirolari taldetxo batek parte hartu zuen lehiaketan eta izan zen lasterketak egun batez alde batera utzi eta duatloiarekin ausartu ziren kirolariak ere.

Añorgako proba esprint modalitatekoa da eta hiru zati egin behar izan zituzten parte hartzaileek: 5 km lasterka, 19 km bizikletan eta 2,5 km. lasterka.

Maddi Marquet Ferran donostiarra eta Paul Bereziartua Plaza durangarra izan ziren lehenak helmuga igarotzen. Zumeatarra taldeko Urko Izagirre Agote izan zen lasarteoriatarren artean azkarrena helmugan (01.08.29) eta 23 urtez azpiko mailan seigarren postuan sailkatu zen.

Ez zen bere mailan lehen postuetan amaitu zuen herritar bakarra izan Urkoren aita eta taldekide Mikel Izagirre Aramendi (01.18.51) eta Jon Presa Herranz (01.12.11) lasterkaria



Pres, lehian. ION ZUGASTI

laugarren izan ziren Beterano 2 zein Open mailan, hurrenez hurren.

Bestalde, otsailaren 15ean, Urko bera eta Ibai anaia Amorebieta Etxanoko taldekako proban izan ziren lehian. Zumeatarra A taldeko kide izan ziren biak eta hamalaugarren postuan amaitu zuten lehia.

Andoainen izango dute hurrengo hitzordua duatloi modalitatearen zaleek, hilaren 15ean, Zumeatarra taldeak lehenengo antolatzen duen esprint proban.

Herriko korrikalariak lasterketaz lasterketa dabilta

Mari Carmen Olasok master mailako Espainiako 10K proba lehiatu du, baita hiru maratoi erdi ere azken hilabetean

Txintxarri

Lasarte-Oriako korrikalariak, besteak beste, Bilbon eta Zarautzen izan dira lasterka hilaren 9an.

Bizkaiko hiriburuan lehenengo 10 kilometroko proba jokatu zen eta bere baitan absolutu eta master mailako Espainiako txapelketak izan ziren lehian.

Master mailako 669 parte hartzaile atera ziren Bilboko kaleetan barrena lehiatzera eta horien artean Mari Carmen Olaso Espeso herritarrak izan zen. 46,48 marka egin zuen helmugan eta

F55 mailako hamahirugarren amaitu zuen.

Zarautzen mahasti artean ere izan ziren herritarrak lasterka; Mahasti krosetako VI. edizioa lehiatu zen.

Zazpi kilometrotako ibilbidea egin ostean, Ibai Makazaga Aristi zarautzitarra izan zen helmugara iristen lehena (29.50) eta emakumezkoetan Laiane Arrospe Garmendia tolosarra (38.56) izan zen garaile.

Lasarteoriatarren artean ere izan ziren proban eta Jesus Osua Garcia (42.18) eta Aintzane Ugar-



Olaso, Salamancako podiumean. MC OLASO

temendia Iturrizar (49.18) izan ziren herritarren artean azkarrenak maila bakoitzean.

Hiru maratoi erdi

Aste bete lehenago, hilaren 2an, Olaso herritarrak Salamancako (Gaztela eta Leon) Maratoi Erdian parte hartu zuen. Helmugan

Atleta gazteak, Espainiako lehiatan

Lasarte-Oriako atletak maila ezberdinetako pistako Espainiako txapelketari egingo diete aurre hurrengo asteetan.

Lehena Ostadar SKTko Iraia Alkorta Goikoetxea abiadura lasterkaria izan da. Hilaren 8an eta 9an, Salamancan (Gaztela eta Leon) lehiatu zen 20 urtez azpiko txapelketa eta Alkortak 60 m. lasterketan parte hartu zuen. Laugarren sailkapen lasterketan jardun zen atleta gaztea. 7,85 marka ez zen nahikoa izan finalerdiko sailkatzeko.

Hilaren 15 eta 16an, aldiz, 16 urtez azpiko lehia jokatuko da Ourensen (Galizia) eta bi herritarren parte hartuko dute: Ostadar SKTko Eider Redondo Juarez eta Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondo Fernandez. Redondok proba konbinatuei egingo die aurre eta Murgiondok, aldiz, pertika probari.

01.42.21 denbora egin eta zilarrezko domina eskuratu zuen F55 mailan.

Era honetara hiru asteburuetan maratoi erdi bana egin zuen

herritarrak (Medina del Campo, Irun eta Salamanca) eta Gaztela eta Leongo probetan podiumeko bigarren mailara igo zen; Irunen laugarren izan zen.

Taula Xake Klubeko taldeak, ederki lehian

Taula Xake Klubeko taldeak Gipuzkoako Ligako txapelketako fase ezberdinetan murgilduta daude. A taldeak igoera fasea hasi du; B taldeak lehen faseko azken jardunaldia du aurretik. Biek lortu dituzte puntuak etxean jokatu lehian, berriki

Txintxarri

Taula Xake Klubeko ordezkariak ederki ari dira lehian taldekako Gipuzkoako Ligan. Bigarren mailako taldea igoera jokatzeko ari da; hirugarren mailako kideek, aldiz, jardunaldi bat falta dute fasea amaitu eta lehen postuan amaitzeko. Biek ala biek jardunaldia izan zuten hilaren 8an Blas de Lezoko lokalean eta puntuak eskuratu zituzten.

Taula A taldeak martxoan hasiarekin batera I. mailarako igoera fasea hasi du.

Fase berriko lehen hitzorduan Zaleak A izan zuen aurrez aurre Lasarte-Oriako taldeak eta bina berdindu zuen. Erlantz Sanchez Huertak garaipena lortu zuen bere taulan, Pablo Arrondo Carbonell eta Jose Ignacio Echeverria Eleiceguik parra egin zuten eta Miguel Maria Borja Arruek ezin izan zuen punturik eskuratu.

Bere multzoko lehen sailkatu modura amaitu zuen lehen fasea A taldeak eta harekin batera batera sailkatu ziren Beraun Bera B, Salto Bidasoa C eta Gros I. Horien aurka eskuratutako puntuak mantenduko ditu taldeak lehian berri eta azken fase honetan beste multzoko Txaturanga, Bergara A, Santikutz B eta Zaleak A taldeen aurka lortutakoak



Taula A taldeko kideak maila igoera jokatzeko ari dira. TXINTXARRI

gehitu zaizkio sailkapenari. Gauzak horrela, lehen jardunaldiaren ostean, Taula A eta Beraun Bera B 9,5 puntuetara berdinduta daude.

Finala, gertu

B taldeak hirugarren mailako azken aurreko neurketa jokatu zuen. Beraun Bera Cko laukoa izan zuen aurrez aurre etxeko taldeak eta nagusitasunez 4-0 garaitu zuen.

Horri esker, bere multzoko sailkapeneko buru da 22,5 punturekin eta 3,5 tantoko aldea du bigarren sailkatuarekin. Faseko azken norgehiagokan, hilaren 15ean, Gros L izan du aurkari

eta lehena mantenduz gero, mailako finala jokatu luke beste multzoko buruaren aurka.

Gazte mailako lehian

Taldekako txapelketaz gain, urtarrilean eta otsailean igandero hitzordua izan dute xake jokalariek, Donostian. Euren mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatu da eta Taula Xake Klubak Erlantz Sanchez Huerta izan du ordezkari.

Sanchezek zazpi partida jokatu ditu. Lau irabazi, bat berdindu eta bi galdu ostean, sailkapeneko seigarren postuan amaitu du lehiaketa xake jokalariek gazteak.

Fibromialgia ikustarazteko Gipuzkoako bira egingo du

Beñat Garcia Escribano hilaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik, 05:30ak eta 06:30ak artean

Txintxarri

Beñat Garcia Escribanok fibromialgia gaixotasuna ikustarazteko *Fibromialgia Abordatzen!* proiektua jarri zuen martxoan iaz. Kirol erronka modura hainbat probatan parte hartu zuen, Lasarte-Oria Bai! kros herrikoai barne eta azken helburua, abenduan Gipuzkoako bira egitea zen. Orduan ez zen posible izan eta orain, hilaren 21etik 23ra eramango du aurrera 200 kilometroko bidea. Urduri dago Garcia, birako azken prestaketak egiten; egitasmoko zertzelada batzuk eman dizkigu.

Donostiako Bulebarrean hasi eta Asteasuko plazara hori izango da egingo duen bidea. Egitasmoren izenak dion modura gure lurraldeari bira emango dio eta beraz, ibilbidea ez da zuzena izango. Hala nola, Hondarribi, Oiartzun, Hernani, Orio edo Elgoibar igaroko ditu Garciak eta Lasarte-Oriatik hilaren 22an goizeko 05:00ak eta 06:30ak artean pasatzea aurreikusten du.

Lasarte-Orian barrena egingo duen bidea zehaztu digu Garciak: "Hernani bidetik Zabaletara sartuko naiz, aldapan beheara San Pedro elizarantz egingo dut eta bertan Okendo plazara joango naiz. Bertatik Hipodromoko zubira egingo dut Zubietara abiatzeko".

Eta ibilbidea amaitzean, Asteasun jai txiki bat antolatu duela ere azaldu du: "Eguerdian iritsiko naiz Asteasura eta bertan pintxoak, hitzaldi bat eta abar izango dira, eta gero, eta jende gehiago bildu gero eta ikusga-



Garcia, kroseko helmugan. TXINTXARRI

rritasun gehiago emango diogu egitasmoari".

Bidelagunak probarako

Bidean anoa puntuak izango ditu Garciak eta berarekin bidea egiten dutenek ere bertan mokadutxo bat egiteko aukera izango dute. Izan ere, egitasmoarekin bat egin nahi duten pertsonak ibilbideko zatiak egin ditzakete: "Jendeari deia egin nahiko nioke nirekin batera bidea egitera edo bide ertzean animatzen egotera. Uneoro korrika egitea zaila izango da; zati batzuk oinez egingo ditut. Beraz, nahi duenak nirekin zati bat egin dezake".

Horrez gain eskerrak eman nahi dizkie egitasmoa babestu duten merkatari, babesle eta udalei, baita birako egunetan izango diren laguntzaileei ere. "Gipuzkoan eta Lasarte-Orian hainbat denek egin dute bat eta donazioa ere egin dute. Horrez gain, diru bilketa kanpaina ere dugu martxoan. Egitasmoaren azken gastuak ordaindu eta Elisa Oltra ikertzaileak duen proiekturako bideratuko da biltzen duguna", adierazi du.

Junior Errendimendu Zilar taldeek garaipena erdietsi dute

Fase erregularra lehiatzen ari dira Ostadar Beltza zein Ostadar SKT taldeak; taularen erdian daude sailkapenean

Txintxarri

Lehen fasea amaitu ostean, Ostadar SKTk bi talde ditu egun lehian Junior Errendimendu Zilar mailan, Ostadar Beltza eta Ostadar SKT. Bi taldeek etxean jokatu zuten fase erregularreko joaneko azken jar-

dunaldia hilaren 8an eta garaipeneko puntuak eskuratu zituzten.

Ostadar Beltza taldeak Michelin kirol guneko kantxan egin zion aurre Inar Optika ISBri. Neurketa borrokatua izan zen eta puntu gutxikoa.

Urdin-beltzek hasieratik hartu zuten aurre (5-2) eta partidako zenbait momentuetan aurkariak markagailua berdindu arren, etxekoek zatiz zati (15-11, 21-17 eta 32-24) errenta handitzea edo mantentzea lortu zuten garaipena erdietsi arte.

Maialen Chourraut kiroldegian jokatu zen Ostadar SKT eta Hemen Garbiketako Eskoriatza KE taldeen arteko norgehiagoka ere bizia izan zen. Etxekoek lehen hamar minutuak aldeko 19-12ko markagailuarekin amaitu zuten,




Jokalariek, baloia bilatu. TXINTXARRI

baina hurrengo bi zatietan eskoriatzarrek gerturatzea lortu zuten (43-41). Urdin-beltzek ez zuten neurketa galdu nahi eta ederki borrokatu ziren aurkaria 64-57 gainditzeko.

Fase erregularrean sei taldeko bi multzo egin dituzte A-1 eta A-2 eta horretako bakoitzean Ostadar taldeko ordezkari bana dago. Bi itzuliko ligako erdialdera iritsi dira eta Ostadar Beltza sailkapeneko hirugarren dago A-1ean; Ostadar SKT, aldiz, laugarren da A-2an.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Eñaut
Zorionak bihurri! 3 ala 5 urte? Ia-ia zerurainoko saltoa egingo duzu laster! Ederki ospatuko dugu. Muxu erraldoia zuretzako!



Nikole
Zorionak Nikole! Sei urte egun asko dira, milaka algara, milioika jolas eta poz handi handi bat! Muxuak Joanes, aitaxo eta amaxoren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 14	KNIESE
LARUNBATA, 15	DE MIGUEL
IGANDEA, 16	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 17	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 18	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 19	LASA
OSTEGUNA, 20	GIL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behea, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaitzte data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

OHARRAK

La Esperanza auzo elkarteko urteko ohiko batzarra

La Esperanza auzo elkarteak urteko ohiko batzarra egingo du hilaren 15ean, goizean.

Oriako Karmengo Amaren kaperan elkartuko dira bazkideak. Aurreneko deialdia 10:00etan izango da, eta bigarrena, 10:30ean.

Gai hauek landuko dituzte: aurreko bileretako aktak onartzea; ikasturtearen balantzea; zuzendaritza talde berria izendatzea; eta galdera eta erreguen txanda.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Trastelekua saltzen dut, 20 m²., sotoa da, Sasoetan. 4.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 644 90 21 09.

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKARIA

Etoko garbiketa lanak egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta informea ditut. Harremanetarako zenbakia, 678 35 50 95.

Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko.

Harremanetarako, 613 95 31 26.

Externa moduan lan egiteko prest nago, 09:00etatik 16:00etara. Dokumentazio guztia eguneratuta dut. Harremanetarako, 623 72 00 61.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

2. Batxilergoko ikasle bati Matematiketan laguntzeko eskola partikularrak emateko norbait behar da. Interesa dutenek deitu zenbaki honetara: 660 89 48 14 (Mari Karmen).

12 urteko neska bati zatiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c.-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Opel Antara 150cv salgai. 2008. urtekoa. Gris koloreko

larruzko eserleku berogarriekin. Funtzio anitzeko txartela. Nabigatzailea pantailan eta esku librekoa. Aleazio-hagunak. Hurbiltasun-sentsorea. Aire girotua. Likidoen aldaketak eginda. Balazta-pastilla eginak. % 80ko estalkiak. Autoa oso ondo dabil eta oso zabala da. 7.000 euro. 672 41 67 61.

Kawasaki Z900 saltzen dut, 2018. urtekoa, 17.504km-rekin. Estrak ditu, SC ihes-hodia, balazta-heldulekuak, erorketen aurkako gomak, direkzio-ese-kidura eta martxoko estalkiak. Dauzkadan serieko gauza guztiak motorrarekin batera entregatuko ditut. 6.000 euro. 606 59 90 64.

BMW X5 4.4.1 saltzen dut. 2001. urtekoa. 4000 euro. 606599064

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterko kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10



WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Lierni Apaolaza Urdanpilleta.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Xuban Urdalleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Intza Aginagalde.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Querer* telesaila emango du, Martxoaren 8ko egitarauaren barruan. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.



LASARTE-ORIA Topaketa

Lasarte-Oriako erregio etxeetako eta elkarteetako emakume elkartekideen topaketa eguna ospatuko dute. Txupinazo eta agurrarekin egingo diote egunari, eta karaokearekin amaituko. Tartean, askotariko jarduerak iragarri dituzte; beheko agendan kontsulta ditzakezue horiek guztiak.

Hilak 16, herriko zenbait lekutan.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA Tailerra

Autodefentsa feminista tailer bat antolatu dute nerabeentzat, euskaraz. Martxoaren 8ko egitarauaren barruko jardueretako bat da.

Sexuen Elkarbizitzarako Emakumearen Zentroa, 11:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Ene Kantak taldeak *Bisonte-mastodontearen bila* antzezlanaren emanaldia egingo du, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Motorrak

Scoter Club Euskadi elkarteak motorzaleen rallyaren 25. urteurrena ospatzen ari da. Horren barruan, Gipuzkoari itzulua emango dio, sei etapatan. Aurrenekoan Iraetaraino joan eta Lasarte-Oriara itzuliko dira.

Route 33 taberna, 09:30ean.



LASARTE-ORIA Topaketa

Elkarte gastronomikoetako eta erregio etxeetako emakumeen topaketa egingo dute:

11:00etan, txupinazoa eta agurra.

11:15ean, kalejira eta pintxo-potea, Oaintxe in deu! txarangarekin.

13:30ean, Bea Egizabalen bakarrizketa, Extremadura Etxean.

14:15ean, bazkaria.

17:00etan, karaokea.

Extremadura Etxea (Adarra kalea) eta herrian barrena.

LASARTE-ORIA Zinema

Flow, un mundo que salvar filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Nosotros filma emango dute, helduentzat. Sarrerek, 6 eurotan.

Kultur etxea, 19:30ean.



ASTEARTEA 18

LASARTE-ORIA Literatura

Irakurle Txokoko kideek *Animalia domestikoak* lanari buruzko saioa egingo dute, Esti Martinez Diaz de Cerio idazlearekin. Martxoaren 8ko egitarauaren barruko jarduerara da.

Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.



LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kamikaz Kolektiboak *Renata* antzezlanaren emanaldia egingo du, Manuel Lekuonan helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan eros daitezke.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Zinema

Mary Superchef filmaren emanaldia egingo dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La luz que imaginamos filmaren emanaldia egingo dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.



ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA Antzerkia

Teatro Estudio taldeak *La cantante calva* antzezlanaren emanaldia egingo du, helduentzat. Sarrera doakoa da.

Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 27

LASARTE-ORIA Antzerkia

Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Kukuka antzerki

10:00
TXORIEN KANTUAK
EZAGÜTZEKO GÖZ PASA
(ADIN GÖZTIETARRAKO)
ARANZADI ELKARTEKÖ
MIGUEL ÖLANÖ ADITÖAREKIN

19:00
Lurhats
TALDEAREN KÖNTZERTÖ

ARRATSALDEAN TALÖ PÖSTÖA EGÖNGÖ DA

LASARTE-ORIA Festa

Udaberriari ogietorria emateko, festa ederra antolatu du Zabaleta Auzolan elkarteak. Horretarako honako jarduerak iragarri ditu: 10:00etan txorien kantuak ezagutuko dituzte, bertaraten direnek, Aranzadi Zientzia Elkarte kide Miguel Olanorekin. Arratsaldean taloak jateko aukera izango da, eta 19:00etan, berriz, Lurhats taldeak kontzertua emango du.

Hilak 22, Zabaleta auzoan.

eskolako kideek X. Antzerki Topaketa aurrera eramango dute. *Okendo plaza, 18:00etan.*

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Aun estoy aquí* filma proiektatuko du.

Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 29

LASARTE-ORIA Antzerkia

Txalo Produksioak-ek *Amak* antzezlanaren emanaldia egingo du, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA Zinema

Paddington en la selva filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La ultima reina filma emango dute, helduentzat. Sarrerek, 6 eurotan.

Kultur etxea, 19:30ean.



BAZKIDETZA TTAKUN

KULTUR ELKARTEA



bazkide egiteko:



Bazkide giztiak hilabetero zozketetan parte hartzeko aukera dute!!

kultur ekitaldietarako sarrerak, bazkari edo afariak, produktuak, herriko komertzioetan erabiltzeko bonoak, etab.

Euskara eta kultura bidelagun !

Zer babestuko duzu?

• Haur eta gazteen euskarazko aisialdia

Amarau kluba
Gazte kluba
Kuadrillategi
Faktoria
Udako Txokoak
Udako kanpaldiak

• Helduen euskarazko aisialdia

Plaza Dantza eta Muxikoak
Solaskide programa
Titare jostintza taldea
Helduentzako tailerrak

• Kultur ekintzak

Euskal Inauteriak
Bertso saiokak
Azkorteke erromeria
Sorgin Dantza
Santa Ana parodia
Euskararen Maratoia
Euskaraldia
San Tomas azoka
Olentzerori ongietorria

• Txintxarri aldizkaria

• Ikastaroak

- Lehenetsuna zenbait izen ematetan
- Deskontuak
- Zozketetan parte hartuko duzu
- "Ttakunberri" butelín digitala jasoko duzu

Zein abantaila izango dituzu?

